

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 hazi zen abenduan


Gizarte Segurantzako afiliazioak inoizko zifrarik handiena lortu zuen abenduan, 1.024.511 afiliadorekin, 2023ko hilabete berean erregistratutakoak baino %1,1 gehiago. Laugarren hiruhilekoko batez besteko gehikuntza %1,2 izan zen, hirugarren hiruhilekoko hazkundearekin bat etorriz. Beraz, EAEn enplegu sorrera egonkortu egin zen urtearen bigarren erdian, dinamikoagoa izan zen lehen erdiaren ondoren (%1,8).

Sexuaren araberako azterketak adierazten du abenduan emakumeen afiliazioak gizonenak baino hazkunde tasa handiagoa lortu zuela, urte osoan zehar gertatu zen bezala. Zehazki, abenduan aldakuntza tasa %1,3 izan zen emakumeen kasuan eta %1,0, berriz, gizonen kasuan. Gaur egun, emakumeek afiliazio guztien %48,4 bereganatu dute eta gero eta pisu handiagoa dute, nahiz eta diferentziala oraindik hiru puntukoa den.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA
%1,1




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomiaren hiru sektore nagusiek urte arteko tasan afiliazioa handitu bazuten ere, zerbitzuek bildu zituzten enplegu berri gehienak. Izan ere, %1,4ko hazkunde tasa eskuratu zuten, eraikuntzan %0,7koa eta industrian %0,6koa jaso ziren bitartean. Nabarmentzekoa da osasun jardue-

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



retan, ostalaritzan, jarduera profesionaletan, hezkuntzan eta garraioan afiliatutako pertsonen gorakada. Aitzitik, jarduera gutxik murriztu zuten afiliazioen kopurua. Horien artean, etxeko zerbitzua eta lehen sektorea nabarmentzen dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

| | 2023ko abendua | 2024ko abendua | Aldakuntza |
|--|------------------|------------------|---------------|
| AFILIAZIOA GUZTIRA | 1.012.947 | 1.024.511 | 11.564 |
| Industria manufakturagileak | 174.170 | 174.939 | 770 |
| Merkataritza | 136.477 | 136.555 | 78 |
| Osasun arloko jarduera | 115.336 | 118.004 | 2.668 |
| Hezkuntza | 84.425 | 85.655 | 1.230 |
| Ostalaritza | 70.306 | 72.193 | 1.888 |
| Administrazio jarduerak | 68.324 | 69.506 | 1.182 |
| Lanbide jarduerak | 62.975 | 64.571 | 1.596 |
| Eraikuntza | 58.309 | 58.733 | 423 |
| Administrazio publikoa | 52.105 | 52.145 | 40 |
| Garraioa | 45.886 | 47.088 | 1.202 |
| Etxeko langileak | 29.094 | 28.000 | -1.094 |
| Informazioa eta komunikazioa | 27.184 | 27.949 | 766 |
| Bestelako zerbitzuak | 27.242 | 27.068 | -174 |
| Jarduera artistikoak | 19.657 | 20.200 | 543 |
| Finantza jarduerak | 17.000 | 17.343 | 343 |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 11.217 | 11.043 | -174 |
| Ur horniketa | 6.507 | 6.719 | 212 |
| Higiezin jarduerak | 4.372 | 4.393 | 22 |
| Energia horniketak | 1.750 | 1.778 | 28 |
| Erauzketa industriak | 530 | 539 | 9 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 83 | 88 | 5 |

Iturria: Gizarte Segurantza.